



**2014-2020 ESKUALDEAK GARATZEKO EUROPAKO
FUNTSAREN PROGRAMA ERAGILEAREN EUSKADIKO
JARRAIPEN BATZORDEA ERATU DA**

**Euskadik 176 milioi euro izango ditu erabilgarri 2020ra
bitartean**

(2015eko martxoak 23. Vitoria-Gasteiz).

Gaur goizean eratuta geratu da (*) **2014-2020 Eskualdeak Garatzeko Europako Funtsaren Programa Eragilearen Euskadiko Jarraipen Batzordea**. Bileran Europako Batzordeak 2015eko otsailaren 12an onartutako programa martxan jartzeko lanekin lotutako hainbat auzi aztertu dira.

- **2014-2020 Eskualdeak Garatzeko Europako Funtsaren Programa Eragilea Euskadin** agiriak Eskualdeak Garatzeko Europako Funtsak 2014-2020 aldirako kofinantzatutako jardueretan Euskadin ezarriko diren estrategia eta esku-hartze helburuak zehazten ditu. Programa horri esker, euskal administrazio publikoek **352,9 miloi euroko inbertsioak egin ahal izango dituzte, % 50ean Europar Batasunak finantzatuko dituenak.**
- **2014-2020 Eskualdeak Garatzeko Europako Funtsaren Programa Eragilea Euskadin** agiria Euskadiko aurrerabidea bermatzeko plan estrategikoetan oinarrituta diseinatu da, betiere Espainiak Europar Batasunarekin elkartzeko sinatutako akordioarekin eta Europa 2020 Estrategiarekin bat eginez – hazkunde inteligente, jasangarri eta integratzailea sortzea eta

Europar Batasuneko eskualdeen gizarte, lurralde eta ekonomia arloko kohesioa bermatzea du helburu estrategiak—.

- Eskualdeak Garatzeko Europako Funtsak emandako **176,45 milioi euro** horien % 90 honako arlo hauetara bideratuko dira: **Ikerkuntza, Garapena eta Berrikuntzara (I+G+B); informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera eta kalitatea hobetzeraz; enpresa txiki eta ertainen lehiakortasuna hobetzeraz; eta karbono kontsumo baxuko ekonomia batera igarotzeko jarduerak laguntzeraz —besteak beste, energia berriztagarriak sustatuz, energia eraginkortasuna hobetuz karbono dioxido isurpenak murrizteko eta mugikortasun jasangarria bultzatuz—.**

Horrez gain, klima aldaketara egokitzeko, arriskuak prebenitu eta kudeatzeko, ingurumena kontserbatu eta babesteko, eta baliabideen erabilpen eraginkorra sustatzeko jarduerak ere lagunduko dira.

- **2014-2020 Eskualdeak Garatzeko Europako Funtsaren Programa Eragilea Euskadin** agiriak Euskadiren espezializazio adimentsua bultzatzeko RIS 3 Euskadi estrategian zein Euskadi 2020 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Planeko ildo estrategikoetan ezarritako helburuak betetzea laguntzen du. Helburu horiek fabrikazio aurreratuarekin, energiarekin eta biozientziekin estuki lotuta daude.

(*) 2014-2020 Eskualdeak Garatzeko Europako Funtsaren Programa Eragilearen Euskadiko Jarraipen Batzordea:

- **Kide iraunkorrak:**

- Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioko Eskualdeak Garatzeko Europako Funtsaren Kudeaketaren Zuzendariorde Nagusia.
- Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.
- Arabako Foru Aldundiko Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritza.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Zerbitzu eta Katastroko Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Zerga eta Finantza Politikako Zuzendaritza Nagusia.
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Ingurumen Sailburuordea.
- Emakunde, Emakumearen Euskal Erakundea.
- Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioko Erkidegoko Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren Lurralde Programazio eta Erkidegoko Programen Ebaluaziorako Zuzendariorde Nagusia.

- **Kontsultarako kideak:**

- Europako Batzordea.
- EAEko solaskide ekonomikoak eta sozialak (EGAB).
- Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioko Erkidegoko Funtsen Zuzendaritza Nagusiaren Ziurtagiri eta Ordainketetako Zuzendariorde Nagusia.
- Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoa (KEB).
- Gainerako Europako eta Inbertsio Funtsen Eusko Jaurlaritzako unitate arduradunak (FEADER, FEMP eta FSE).
- Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren Basogintza Politikako Zuzendaritza Nagusia (MAGRAMA) (FEADER)
- Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioko Europako Gizarte Funtsaren Unitate Administrazioa (UAFSE).